

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak. 2022ko apirila

## 2022ko apirilean, Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak eta gualdiak hirukoiztu egin dira 2021eko datuen aldean

**Aste Santuko sarrerak eta gualdiak COVID-19aren aurretiko 2019ko Aste Santuko sarrerak eta gualdiak baino gehiago izan dira**

Eustatek landuriko datuen arabera, **2022ko apirilean** Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak % 207,4 gehitu dira, eta gualdiak % 206,1, urte arteko terminoetan.

Guztira 288.487 sarrera izan dira, zeinek 534.916 gualdi ekarri dituzten. 2021eko apirilean 93.844 sarrera eta 174.769 gualdi izan ziren. Oroitarazi behar da ezen 2021eko apirilean hainbat mugikortasun-murrizketa zeudela indarrean, besteak beste, autonomia-erkidegoen perimetro-itxiera Aste Santuan.

Atzerriko jatorriko pertsonen sarrerak guztizkoaren % 38,8 izan dira aurtengo apirilean, eta gualdiak % 39,8. Duela urtebete, aldiz, atzerriko jatorriko sarrerak guztizkoaren % 14,1 izan ziren, eta gualdiak % 15,6.

### Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia. Apirila 2022

|                          | Sarrerak       |              | Gualdiak       |              | Batez-besteko egonaldia |             |
|--------------------------|----------------|--------------|----------------|--------------|-------------------------|-------------|
|                          | 2022/04        | m/m-12 (%)   | 2022/04        | m/m-12 (%)   | 2022/04                 | 2021/04     |
| <b>EUSKAL AE</b>         | <b>288.487</b> | <b>207,4</b> | <b>534.916</b> | <b>206,1</b> | <b>1,85</b>             | <b>1,86</b> |
| Estatukoak               | 176.460        | 118,8        | 322.079        | 118,2        | 1,83                    | 1,83        |
| Atzeritarrak             | 112.027        | 748,5        | 212.837        | 682,9        | 1,90                    | 2,06        |
| <b>Araba/Álava</b>       | <b>36.609</b>  | <b>134,2</b> | <b>67.950</b>  | <b>109,7</b> | <b>1,86</b>             | <b>2,07</b> |
| Estatukoak               | 26.990         | 97,2         | 51.586         | 83,5         | 1,91                    | 2,05        |
| Atzeritarrak             | 9.619          | 394,6        | 16.364         | 281,6        | 1,70                    | 2,20        |
| Vitoria-Gasteiz          | 26.326         | 125,3        | 50.657         | 107,0        | 1,92                    | 2,09        |
| <b>Bizkaia</b>           | <b>131.196</b> | <b>228,0</b> | <b>242.822</b> | <b>226,9</b> | <b>1,85</b>             | <b>1,86</b> |
| Estatukoak               | 80.284         | 127,6        | 141.693        | 124,4        | 1,76                    | 1,79        |
| Atzeritarrak             | 50.912         | 975,0        | 101.129        | 806,5        | 1,99                    | 2,36        |
| Bilbao                   | 89.590         | 284,9        | 170.400        | 319,4        | 1,90                    | 1,75        |
| <b>Gipuzkoa</b>          | <b>120.682</b> | <b>215,9</b> | <b>224.144</b> | <b>229,2</b> | <b>1,86</b>             | <b>1,78</b> |
| Estatukoak               | 69.186         | 118,3        | 128.800        | 128,6        | 1,86                    | 1,78        |
| Atzeritarrak             | 51.496         | 689,6        | 95.344         | 712,1        | 1,85                    | 1,80        |
| Donostia / San Sebastian | 76.377         | 257,7        | 145.117        | 297,2        | 1,90                    | 1,71        |

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Maiatzaren 20a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Hotel-establezimenduetako sarreren % 12,7 Araban izan dira 2022ko apirilean, Bizkaian % 45,5 eta Gipuzkoan % 41,8. Gualdietan, Araban 67.950 gau igaro dituzte bidaiariek, guztizkoaren % 12,7; Bizkaian 242.822 gualdi izan dira, orotarakoaren % 45,4; eta Gipuzkoan 224.144 gualdi zenbatu dira, Euskal AE osoan izaniko guztien % 41,9.

Sarrerak eta gualdiak nabarmen gehitu dira hiru lurraldeetan. Sarreraren kopuruari dagokionez, Bizkaia nabarmentzen da, % 228,0ko hazkunderekin; ondoren Gipuzkoa dator, % 215,9ekin, eta azkenik Araba, % 134,2ekin. Gualdiei dagokionez, urte arteko aldakuntzak % 229,2 izan dira Gipuzkoan, % 226,9 Bizkaian eta % 109,7 Araban.

Sarrera- eta gualdi-kopuruak ere nabarmen egin du gora hiru hiriburuetan. Sarrerak % 125,3 gehiago izan dira Gasteizen, % 284,9 Bilbon eta % 257,7 Donostian. Antzera, gualdiak % 107,0 igo dira Gasteizen, % 319,4 Bilbon eta % 297,2 Donostian.

Euskal AE osotara harturik, 2022ko apirileko batez besteko egonaldia 1,85 egunekoa izan da, 2021eko hilabete berean lorturikoaren antzekoa, 1,86 egunekoa izan baitzen.

## Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. Apirila 2022

|                          | Betetze-mailak (%) |        |         |        | Errentagarritasuna |            |                  |            |
|--------------------------|--------------------|--------|---------|--------|--------------------|------------|------------------|------------|
|                          | plazen arabera     |        | gelaka  |        | ADR (eurotan)      |            | RevPAR (eurotan) |            |
|                          | 2022/04            | p.p. * | 2022/04 | p.p. * | 2022/04            | m/m-12 (%) | 2022/04          | m/m-12 (%) |
| <b>EUSKAL AE</b>         | 53,5               | 29,9   | 62,1    | 31,4   | 88,93              | 34,3       | 55,26            | 171,0      |
| <b>Araba/Álava</b>       | 49,0               | 21,8   | 60,0    | 25,7   | 81,44              | 32,1       | 48,86            | 130,6      |
| Vitoria-Gasteiz          | 48,9               | 21,7   | 62,9    | 27,0   | 67,85              | 12,3       | 42,66            | 96,7       |
| <b>Bizkaia</b>           | 52,1               | 30,6   | 61,5    | 32,1   | 86,73              | 42,3       | 53,36            | 197,8      |
| Bilbao                   | 58,0               | 39,2   | 67,4    | 41,8   | 94,01              | 49,8       | 63,35            | 294,5      |
| <b>Gipuzkoa</b>          | 56,8               | 32,0   | 63,6    | 32,6   | 93,80              | 25,7       | 59,65            | 157,2      |
| Donostia / San Sebastian | 62,8               | 37,9   | 68,3    | 38,2   | 112,48             | 23,8       | 76,78            | 181,5      |

p.p.\*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Maiatzaren 20a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AE osotara harturik, 2022ko apirileko okupazio-mailak % 53,5era iritsi dira plazen arabera neurtzean, eta % 62,1era logelen arabera neurtzean. 2021eko apirilarekin alderatuta, igoerak ehuneko 29,9 eta 31,4 puntukoak izan dira, hurrenez hurren.

Errentagarritasuna, ADRren edo eguneko batez besteko tarifaren bidez neurtuta, 88,93 eurokoa izan da Euskal AE osoan 2022ko apirilean. Lurraldeei dagokienez, balioak antzekoak dira: Araban 81,44 eurokoa, Bizkaian 86,73 eurokoa eta Gipuzkoan 93,80 eurokoa. Hiriburuetan, aldeak handiagoak dira; izan ere, ADR Donostian 112,48 eurokoa izan da, Bilbon 94,01 eurokoa eta Gasteizen 67,85 eurokoa.

RevPar (logela eskuragarriko batez besteko diru-sarrerak) Euskal AEn oro har 55,26 eurokoa izan dira 2022ko apirilean, 2021eko apirilean lorturiko 20,39 euroen oso gainera.

## 2022ko Aste Santuaren balantzea

Azken Aste Santuan Euskal AEko hotel-establezimenduetan 51.974 sarrera zenbatu dira, % 87,4 gehiago aurreko urtekoen aldean. Azken Aste Santuan ere, bestalde, gualdiak % 126,0 gehitu dira, eta 107.475 izan dira orotara. Hortaz, pandemiaren aurreko mailak gainditu dira sarrera eta gualdiei dagokienez; alabaina, 2019ko Aste Santuan 46.969 sarrera erregistratu ziren, eta 101.980 gualdi.

Okupazio-mailak, urte arteko terminoetan, % 78,9 izan dira plazaka eta % 81,9 logelaka, Euskal AE osoan oro har. Portzentaje horiek ehuneko 32,8 puntuko hazkundera adierazten dute plazen arabera neurtuz gero, eta 33,1 puntukoa logelen arabera neurturik. Hala lurraldeetan nola hiriburuetan, aldagai horien balioak bat datoz Euskal AEko balioekin.

Jatorri atzeritarreko turistak sarrera guztien % 31,5 dira, eta gualdien % 29,1. Hala, gora egin dute pandemiak markaturiko 2021eko Aste Santuaren aldean: % 580,1 eta % 619,4, hurrenez hurren. Jatorri nazionaleko turismoak ere aurreko urtean baino datu hobeak izan ditu: sarrerak % 40,5 gehitu dira, eta gualdiak % 76,3.

## Sarrerak, gualdiak eta betetze-mailak hotel establezimenduetan Euskal AEn, eremu geografiko eta jatorriaren arabera. Aste Santua(\*). 2022

|                          | Sarrerak      |              | Gualdiak       |              | Okupazio-mailak |             |             |             |
|--------------------------|---------------|--------------|----------------|--------------|-----------------|-------------|-------------|-------------|
|                          |               |              |                |              | plazen arabera  |             | gelaka      |             |
|                          | 2022          | 2022 / 2021  | 2022           | 2022 / 2021  | 2022            | p.p. *      | 2022        | p.p. *      |
| <b>HOTELAK</b>           |               |              |                |              |                 |             |             |             |
| <b>EUSKAL AE</b>         | <b>51.974</b> | <b>87,4</b>  | <b>107.475</b> | <b>126,0</b> | <b>78,9</b>     | <b>32,8</b> | <b>81,9</b> | <b>33,1</b> |
| Estatukoak               | 35.598        | 40,5         | 76.154         | 76,3         | -               | -           | -           | -           |
| atzeritarrak             | 16.376        | 580,1        | 31.321         | 619,4        | -               | -           | -           | -           |
| <b>ARABA/ALAVA</b>       | <b>6.600</b>  | <b>33,7</b>  | <b>13.726</b>  | <b>34,7</b>  | <b>71,8</b>     | <b>10,5</b> | <b>80,5</b> | <b>13,8</b> |
| Vitoria-Gasteiz          | 4.668         | 42,7         | 9.711          | 44,7         | 68,6            | 13,1        | 80,4        | 17,4        |
| <b>BIZKAIA</b>           | <b>24.085</b> | <b>130,1</b> | <b>50.295</b>  | <b>196,3</b> | <b>79,2</b>     | <b>42,9</b> | <b>80,6</b> | <b>41,6</b> |
| Bilbao                   | 15.614        | 141,4        | 32.960         | 226,6        | 82,8            | 48,3        | 83,5        | 45,8        |
| <b>GIPUZKOA</b>          | <b>21.289</b> | <b>72,6</b>  | <b>43.454</b>  | <b>113,1</b> | <b>80,9</b>     | <b>29,5</b> | <b>83,9</b> | <b>30,7</b> |
| Donostia / San Sebastian | 12.678        | 85,9         | 26.756         | 128,8        | 85,4            | 33,2        | 88,9        | 37,2        |

(\*)Aste Santua: Ostegunetik igandera (4 gau).

p.p.\*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Data 2022ko Maiatzaren 20a

Iturria: Eustat, Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Lurraldeka, aurreko Aste Santuaren aldean positiboa izan da, intentsitate ezberdinetan, jokamoldea: Araban % 33,7 gehitu dira sarrerak, Gipuzkoan % 72,6 eta Bizkaian % 130,1. Era berean, gualdietan aldaketa positibo hauek gertatu dira: % 34,7 Araban, % 113,1 Gipuzkoan eta % 196,3 Bizkaian.

Joera bera ikusten da, eta are hazkunde handiagoekin, hiru hiriburuetan; Bilbo nabarmentzen da, sarreretan % 141,4ko igoera izan baitu, eta gualdietan % 226,6koa. Donostian % 85,9 sarrera gehiago izan dira, eta % 128,8 gualdi gehiago. Gasteizen, azkenik, sarrerak % 42,7 hazi dira, eta gualdiak % 44,7.

### **Informazio-oharra**

Apirileko Hotelen ETHIren estaldura % **93,6koa** izan da. Eustatek eskerrak ematen dizkie eginiko ahaleginagatik inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

<https://www.eustat.eus/dgsServicesWar/MainId?gsservice=apps&gsrequest=getApplication&idapp=EUSTAT>

---

#### **Informazio gehiagorako:**

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62